

BASARRIREN BERTSOLARI PROIEKTUA

Juan Mari LEKUONA

Basarri bertsolariak 1935ean lehenengo bertsolari txapelketa irabazi zuenean, garai hartako idazle gazte eta argi zenak, Jose Artetxe gogoangarriak, honelatsu ematen digu bere eta orduko jende askoren iritzia txapelketari buruz: ez zela harritzekoa saria Basarri ematea, honen merituak neurtuz gero. Baina horretan ez da bukatzen auzia. Zera dio: «Basarrik bere eskola jarriko du; eta jarri behar du gainera. Bere jarrera eta arierak eta bertsolari zaharrenak bistan da oso bestelakoak direla; eta eginkizun bat duela txapeldun berriak, bertsozaletasuna sentitzen duten asko eta asko leziatu behar dituela eta hezi bere inguruan»¹.

Handik 50 urtera, gertaera haren urrezko ezteiak zirenean, Zarautzen egin zitzaion omenaldian, goratu genuen Basarriren garaitza historikoa, eta azpimarratu ere bai, nola Basarrik bete izan duen orduan itsumustuan jendeak eskatzen zion bertsolari berrikuntza. Hona gure hitzak: «Egun hark garrantzi oso berezia hartzen du aurten. Basarrik ezin eta hobeto bete du bere bizitzan zehar orduko bertsozale eta euskaldunen baitan sortu zuen itxaropena. Gaur, denboraren joanak damaigun ikuspegitik begiratuta, historiak testigantza egiten digu, Basarrik egin duen lana, utzi duen ondorioa eta sortu duen mundu berezia denen begibistara agertuz»².

Artetxek ordukoen itxaropena eta gogoaz aldu zuen ezbairik gabe. Eta gure asmoa da, omenaldikoan orokorki esan genuena, artikulua baten mugabarruan bildu, sailkatu, zehaztu eta eskaintzea. Bertsolaritza berritu asmoz, Basarrik garaturiko proiektua arakatzea: nola Basarrik eskola bat jarri duen plazako bertsogintzan, eta nola Basarriren jarrerak asko eta asko leziatu eta hezi dituen bapateko bertsolaritzan.

¹ Testua eta giroa, Manuel Lekuona: «Ahozko literatura», in «*Idaz-lan guztiak*», 1 t., Kardaberaz Bilduma, 22 a., Eset, Gasteiz, 1978, 327 or.

² Omenaldian irakurri genituen paperetan.

Guzti hau bideratzeko, nahiko gaia ematen digu *Bertsolaritzari buruz* deritzan Basarri beraren liburuak³. Egileak bertsogintzaz duen ikuspegia eskaintzen zaigu: «bertsoaren neurria, puntuak, esanaiak... Saioak nola prestatu, ta noiz ta nun egin bear diran... Gaijartzallearen lana... Ta abar»⁴. Guztira 35 artikulua dira, «Zeruko Argia», «Aranzazu», «Goiz Argi» eta Donostiako kazetetan argitaratuak. Lehenengo idazlana 1963koa dugu, eta azkenekoa 1984koa.

Garaikotasun bizia duten lantxoak dira eta giro desberdinetan sortuak: hala nola eztabaidak, galduta dabilentzat argigarri paratuak, egilearen beraren eskarmentuzko ekarri jakingarriak eta testigantzak eta abar.

Liburuaren edukiaz jabetzen garenean, gauza nabaria da, Basarriren plazako kantugintzaren azpian bertsolari proiektu bat egon dela beti, egitasmo bat; hasieran, behar bada, susmo hutsa zena, baina gerora, bizikizunen eraginez, gero eta argiagoa eta indartsuagoa egiten den proiektua. Eta jakina, egitasmo honi esker, eta egitasmo bera zuten beste bertsolariei esker, burutzen da eta mamitzen bertsolaritza berriagoa, bizkunde garaiko bertsolaritza publikoa, hain jakina eta go-rena.

Hogei urtean zehar Basarrik bertsogintzaz esan dituenak gogoan hartuz, idazlanon azpian datzan proiektua azaleratzeko, hauek izango dira urratsik nagusienak: 1) Bertsolaritzaren beharrik gorrienak, Basarriren ustez; 2) bertsolaritzari opa dizkion helburu nagusiak; 3) estrategiaren barruko gaiak eta baliabideak. Xehetasun hauek bildu eta taiutu ondoren, argiago geratuko direlakoan gaude Basarriren plangintza eta berak egin lanaren balioa.

1. BERTSOLARITZAREN BEHARRIK GORRIENAK

Egitasmo berri batek oso berea du errealitateari buruzko ikuspegi ezkorra edukitzea. Eta gauzen egoera kaxkarrak zuritzen du, ez gutxi, egitasmo berria. Antzeko zerbait gertatzen da Basarriren bertsolari proiektuarekin ere. Hutsune eta beharkizun askotxo ikusten ditu 30. urte inguruko bertsolaritzan. Egoerak markatzen ditu proiektu berriaren beharra ezezik, baita bere nolakotasunak eta eragin guztiak ere.

1.1. Orduko bertsozaleen egoera tamala

Behin eta berriz aipatuko dizkigu horrelako eta antzeko oharra orduko bertsozaleen egoerari buruz: «Asko sufrituak gera gu au dalata. Euskal bertsolaria

³ Iñaki Eizmendi «Basarri»: *Bertsolaritzari buruz*, Auspoa, 178 z., Estella, 1984.

⁴ A. Zavala: *Itzaurrola*, ibid., 12 or.

eta euskal bertsoa lokaztegian ezagutu genituen, eta zelai garbira ateratzeko alegi-ñak egiten asi giñan»⁵.

Denboraren joanean aldatuko du iritzi hau, proiektua aurrera dohan heinean: «Askotan, gutxien dakitenak itzegiten dute geien bertsolaritzari buruz. Aspal-di ontan, orratik, Jaunari esker, jendea asko ari da lezitzen eta edukatzen»⁶. «Ari da jendea ikasten, baña oraindik badago zer ikasi»⁷.

Beraz, Basarriren egitasmoan, lehenik eta behin kontuan edukitzen denetari-ko alderdia dugu jendearen ikas maila bertsoari dagozkionetan. Bertsozaleen ez-jakintasuna da lehenetariko kezka Basarriren asmoetan.

1.2. Orduko bertsolarien jokabide desbideratua

Minberaz eta minduraz mintzatzen zaigu erreziltarra mende honen hasiera-ko bertsolarien jokabidez: «Garai batean, esango digu, bertsolariak, zoritxarrez, bekoeneko maillan arkitzen ziran gizonak ziran; tentelu batzuri par eragiñaztea beste elbururik etzuten gizonak»⁸.

Arantza berak sistatzen du Basarriren bihotza herriko ikasiek -K. Etxegarai mespretxugile sonatuak, adibidez- bapateko bertsogintzaz zuten iritzi kaxkarra entzundakoan: «Min artu izan det, Euskalerriko jende ikasiak... bertsolaritza an-kapean zeukatela jakinda; bertsolariak euskerarentzat kaltegarri zirala... idatzi izan dutela jakinda. Enaiz batere arritzen, ordea, garai artako bertsolarien jokabi-dea ikusita, jende eskolatuak begi onez ez ikustea»⁹.

Orduko bertso-gaietan erabili ohi zen gatz larria ere gaziegi zaio bertsolari-tza berritu asmoz dabilen gazteari. Duintasun gutxia salatzen duela gauza jakina da: «I olakoren andrearekin ibiltzen aiz; i aiz moskortu intzan batean besoa autsi ukana; i aiz olako erritan oinbeste egunetako ostatua zor dekena; i aiz, eurerik ezta, besteren alkandorearekin ibiltzen aizena; i aiz alper guzien kapitaina; i aiz inguruko litxarrero ta lapur guzien burua...»¹⁰. Bistan da zeri egin behar dion ihes orduko entzulegoak eskatzen duen bertsogintzak.

Eta esango digu: «Garai batean (au da negargarria), klase ontara mintzatzen etziran bertsolariak, etziran bertsolariak»¹¹. Iritzi ezkor hau dio bere aurrekoek egin ohi zuten bapateko bertsogintzari: «Aitortu nai duenak aitortu, ta nai eztue-nak ez, au zan bertsolaritzaren izakera orain berrogei urte»¹². (1964ean esan zuen hau; beraz XX. mendeko bigarren hamarkadaz har daiteke).

⁵ Id.: ibid., 117 or.

⁶ Id.: ibid., 15 or.

⁷ Id.: ibid., 17 or.

⁸ Id.: ibid., 57-58 or.

⁹ Id.: ibid., 68 or.

¹⁰ Id.: ibid., 83-84 or.

¹¹ Id.: ibid., 84 or.

¹² Id.: ibid., 58 or.

Horrelako egoera gainditu beharra, ezinutzizko zeregina gertatzen da Basarriren ikuspuntuaz eta eragin-indarraz jabetu nahi bada.

1.3. Orduko bertsolarien hizkuntza baldan eta traketsa

Arbuio betea zegoen orduan erdarakadentzat oro har, eta antzeko jarrera nabaria da bertsolarien hizkera mordoiloa omen zenarekiko. Ordukoen uste ustela adibide batez baliaturik emango digu, bere auzoko aitona baten iritzia gogora ekarriz: «Besteak ez dituk «Udarregirengana» urreratzen; ... «Udarregik» erdera aundia zeukak, eta gañontzekoak ezjakiñak dituk», esaten omen zuen aitona horrek. Eta Basarrik iruzkin hau gehitzen du: «Eskojitu», «prebenitu», «unitu», «suponitu» ta alamoduzko bukaera asko erabiltzen zitun usurbildar bertsolariak, eta argatik zeukaten besterik ez bezelako jakintsutzat»^{12a}.

Hizkuntzaren zuloa zen beste bete-beharretako bat. Gainditurik dago aiton horren eta antzera pentsatzen zutenen ikusmoldea. Oso onarturik zegoen hizkera txukunago baten beharra bertsolaritzak aurrera egingo bazuen. Eta Basarrik hasieratik aurkeztuko du bere aukera, bere eredua.

1.4. Egoera farregarritan kantatzea

Bertso saioaren ingurugiroaz ere ez zegoen akort Errezilgo semea. Duintasun baten eskasia nabaritzen zuen kokalekuaren aldetik. Eta ez zuen batere gogoko jende ikasiak bertso emankizunetik aienatzea: «Iñola ontzat artu ta ametitu ez titekena lengo jokabidea da: erriaren parregarritzat barrika zar biren gañean bertsolariak jarrierazi, ta, batek aundia eta besteak aundiagoa, errespetuko jende guzia plazatik iges bialdu araztea»¹³.

Iritziak iritzi, eta gustuak gustu, jendarteko leku egokiak eta hazturak kezkatzen du Basarri. Eta ez da espaldiko kontuez ari; eta mingarri zaio egiazki horrelako egoera: «Au guzia ezagutua nago ni, oraindik ain zarra izan ez arren. Eztakizute ondo nolako biotzondoa ematen zidan»¹⁴. Urteen buruan ere, norbaitzuk komikotasun biziagoa bertsoleriei eskatzen zietenean, ezin ahaztuko du Basarrik gartzetan berak ezagututakoa; eta ez du nahiko, inolaz ere, hartara bihurtzerik.

Basarrik bertsolaritzari eman dizkion norabidea eta bulkoa ezagutu nahi badira, ezinbestekoa da Basarrik orduko egoera nola ikusten duen zehaztea. Egoeraren ikuspegi honek agertuko dizkigu norainokoak ziren iritzien argia eta sendotasuna, jokabideen leialtasuna eta oparotasuna, eta arazoarekiko sentibera-tasuna. Luzaz iraun zuen egitasmoak, aldaketa handirik eduki gabe.

^{12a} Id.: ibid., 36 or.

¹³ Id.: ibid., 61 or.

¹⁴ Id.: ibid., 61-62 or.

2. BASARRIK BERTSOLARITZARI OPA DIZKION ZENBAIT HELBURU NAGUSI

Hurbileko euskal historian, agian ekonomi eta gizarte aurrerapenek ekarritako hazi-minek eraginik, edota gure herri-nortasuna galtzear ikusteak akuilaturik, gure jendartean sentitu izan da kultur politika bat asmatu eta mamitu beharra. Eta ez istilu eta eztabaidarik gabe. Eta bertsolaritzaren inguru ere, planteiamentu zabal horren barruan kokaturik, usmatu dira egitasmo berriak, eta eztabaidatu ere bai ez gutxi. Bertso-munduaren esparruko liskarrak.

Guzti honen aurrean Basarrik, urtetan zehar, bere iritzi-moldea azaldu digu: idatziz azaldu edota, lekuko berezia zenez, ariaren-ariz aditzera eman bere joku sakon eta zabala, joku emankorra. Jaso eta bil ditzagun hemen berak bertsolaritzari ezarritako helburu nagusiak, ezaugarrien batzuek behintzat.

2.1. Egiteko eta maila desberdinak dituzte olerkariak eta bertsolariak

Puntuaz ari delarik, sendo azpimarratuko du desberdintasun hori: «Euskaldun bertsolariok, oraingoz, eztegu geiegi arduratu bear poesiarekin. Gure egitekoa besterik da. Sail berezia daukagu euskal literaturan. Gure bidea izendatua dago ta andik segi bear degu. Olerkariak (poetak) ba-dute beren bidea ta egitekoa; dabiltzala euren aldetik»¹⁵.

Eta Arestik «Zeruko Argia»-n esaten duelarik «bertsolariak... euskal poetarik hoberenak (dira); olerkari guziak baño obeak». Basarrik, «gauzak bere maillan ezarriz», erantzuten dio: «Bertsolaria errian sartuago dagola; euskerarentzat, gaur gaur bezela, onurakorrago izan ditekela. Au ta olatsuko beste mila argumentu erabili ditezke, baña poetarik onenak bertsolariak dirala ezteike esan iñolako moduz. Arrantzalerik onenak mineroak dirala esatea añakoa da ori»¹⁶.

2.2. Bertsolariak, koplariak, kantariak

Ez dira berdintzekoak bertsolariak ez koplariekin, ez kantariekin.

Santa Ageda bezpera izan berri zela eta, artikulua bat idazten du Basarrik koplarietaz. Honelatsuko ikuspegia damaigu: «Ateondoan kantatzeko oso koplari trebeak diranak, izan ditezke erdipurdiko bertsolari. Ateondoan kantatzen diran koplak bi puntukoak izaten dira, geienik. Bertsolariak, berriz, gutxien dala ere, lau puntuko bertsoa osatuko dizu jardunaldi bakoitzean». «Koplaría bide motxeko korrikalaria da; bertsolaría, bide luzeagokoa». «Koplari onari zail zaio askotan bertsolari ona izaten. Zazpi milla aldiz errezago da bertsolari ona koplari ona

¹⁵ Id.: *ibid.*, 27-28 or.

¹⁶ Id.: *ibid.*, 44 or.

izaten»¹⁷. Bertsolariak eske-bertsoen ohitura ikasiz gero, errez bete dezake koplari lana; baina koplari soilari zail egingo zaio bertsolari legean kantatzea.

Xabier Gereñok idatzi zuen: «Euskaldun bertsolariak ez omen dakite gaurko problemak erabiltzen. Euskaldun abeslariak ari omen dira, zorionez, bertsolarien utsunea betetzen». Argigarri da Basarriren erantzuna: «Abeslari batek egundo sekula ez lezake bete bertsolari baten tokia; ezta bertsolariak abeslariarena ere». Eta bertsolariak «une berean osatu bear ditu esateko guziak. Eta bertsozaleak «bertsoari ondotoxoz balore geiago emango dio gaiari baño» Eta «bertsozale osoa dana, bertsoa neurtzera dijoa, ta ez bertsolariak darabilkin doñua edo gaia». «Au da bukatzeko esan nai nukena: aparteko askak bear dituztela bertsolariak eta abeslariak. Oso senidetasun gutxi dutela bien artean».¹⁸

2.3. Bertsolaria herri-poeta da

I. Linazasororen aipamen batek ematen dio apio Basarri gogoeta hau egiteko: «Erria bertsolariengana murgildua dagoela, euskal olerkariak oso aitamen gutxi duten bitartean». Eta honi erantzuteko, Gabriel Zelaiaren aipamen bat dakar sendogarri: «Bearrena ez da erriatzaz itzegitea, erriarekin hitzegitea baizik». Eta erreziltarrak oharkizun hau jartzen du: «Gaztelera idazten duen olerkari ospetsu batek au badio, zer esan bear du euskal olerkari batek?».

Eta honela laburbiltzen du Basarrik bere irizpidea: «Euskal bertsolariak, ba-koitzak bere maillan, erriari itzegiten dio, ta erriakin itzegiten du. Erriak ondo ulertzen du bertsolariaren lana, naiz kantuz, naiz letraz». Eta olerkarietaz, berriz, lehen eta orain ere egiten den galdera hau egingo digu: «Au bera esan ote dezakegu olerkarien lanetaz?». Eta honela amaitzen du artikulua: «Gure salbazioa bide errezetik dago. Erriarekin itzegiten ikasi bear dugu, izkuntzaren ona nai bade-gu»¹⁹.

Eta *Kantari nator* bere hirugaren liburuaren aurkezpenean, hauxe eta bera dio: «Gure artean ezer bada erriarekin bat egiña dagoenik, bertsolaria da, dudarik gabe. Inolaz ere ez dagokit neri erri orrengandik aldentzerik, eta alaxe nai izanik ere, gaitasunik ez det artarako, noski»²⁰. Beraz, herriarekin hitzegiten du, herriak ulertzen du, eta gaitasunik ez du olerkarien lan zailtarako. Herri-poeta dela esaten digu.

2.4. Ez dira pailazo izateko jaiোক

X. Letek eta Julian Lekuonak bertsolari zahar aukeratu batzuen bertsoak kantatzeko asmoa zutela eta, garbi agertuko digu Basarrik bere ikuspegia: «Eus-

¹⁷ Id.: *ibid.*, 63-68 or.

¹⁸ Id.: *ibid.*, 87-90 or.

¹⁹ Id.: *ibid.*, 91-92 or.

²⁰ I. Eizmendi «Basarri»: *Kantari nator*

kal bertsoak eta euskal bertsolaritza ez tira pailazo izateko jaiok. Eztaukate lokatzetan eta simaur artean ibilli bearrik. Askoz egiteko sakonagoa da beurena; askoz on geiago egin lezaiekete sorterriari eta izkuntzari»²¹.

Eta bere buruaz ari delarik *Kantari nator* bertso-sortan, zenbait bertsolarik eskaintzen dutena baino goragoko zerbait aurkeztu nahi du liburu berrian: «Gaitz ere ez da ta, aurreko bertsolari zaar asko baño txukuntxeago aurkituko nauzu, baño gure olerkariak baño narratxago. Bien tartean aukeratu nai izan det neretzat kabia»²².

Artikulu hau idazten duenean, 1974an, esango digu, «Lengo bertso zarrak kantatuarekin inola ere eztago gaurko bertsolariei tokirik kentzerik». Eta «gaurko bertsolariei tokia kentzezkerok, bertsolari berriak sortu bear dute: beurak baño trebeago, azkarrago ta sakonago diran bertsolariak. Au, zorigaitzez, eztegu erreza ikusten».²³ Beraz, Basarrik sakonagoko helburua ezarri nahi izan dio bertsolaritzari, eta uste ere uste du, bere garaikideen proiektuak tokia harturik daukala bertsolaritzaren plazan eta ez diola amore emango hobeagoko beste proiektu berri bati izan ezik.

2.5. Gauzak beren neurrian

Esaldi hau dela pentsa daiteke Basarrik bertsolaritzaren saioei eta teknikari ezartzen dien lege nagusia: neurritasuna. Horrela behin, txapelketez mintzo zelarik, honelatsu bildu zuen legea: «Eraman alako karga eman bear zaio bertsolaritari. Korrika errez egin lezaken sailla izendatu bear zaio, eta ez aldapa latzez josisia»²⁴. Zertxobait zehaz dezagun ikuspegia.

a. *Bertso-emankizunaren luze-laburrean*: «Jaialdi batera biltzen dan jendea egarri antzean utzi bear da; berriz bueltatzeko gogo aundiarekin.

Aseta, gogait eginda uzten badezu, aozabalka gelditzen badira, urrengorako etzazu izan aien itxaropenik. Aiek eztituzu berriz sarean bilduko, ta, okerreana dana, beste askori esango diete ez inguratze»²⁵.

b. *Neurritzko zailtasunak hartu gaietan, puntutan, bertso-moldetan*

— *Gaietan*: «Bertsolari batek, edo bertsolari izeneko batek, oso gai sakon eta interesgarriak erabili lezazke; problemarik garratzenak azaldu lezazke jendearen aurrean. Zer aurreratzen du gai sakon eta interesgarriak autuagatik, jaiotzen zaizkion bertsoak kaxkarrak eta txarrak badira?

Benetako bertsozaleak naiago du zazpi milla aldiz, gairik ariñenean izanda ere, bertso on eta sustantzizkoak entzun; ondo borobildutako bertsoak, alegia»²⁶.

²¹ Id.: *Bertsolaritzari buruz...*, 116-118 or.

²² Id.: *Kantari nator...*, XX or.

²³ Id.: *Bertsolaritzari buruz...*, 116 or.

²⁴ Id.: *ibid.*, 162 or.

²⁵ Id.: *ibid.*, 67-70 or.

²⁶ Id.: *ibid.*, 88 or.

- *Puntutan*: «Gure pekatua, puntu lege orri morrontza geiegizkoa eskeintzea da, ta mugaz aruzko bertsolari zar askoren pekatua, puntu lege ortatik urrutiegi ibiltzea. Mendi gallurrean eta leiza zuloan ibilli gabe, erdian ba-dago toki amesgarria»²⁷.
- *Bertso-moldetan*: «Gaiak ezarri ta bederatzi puntuko bertsoak aurrez aurre kantatzera beartu bertsolariak. Bertsolariak keldotzeko, larriak ugaltzeko, ta jaialdiak moteltzeko ezteke xixitima oberik aukeratu»²⁸.
«Lau edo bost puntuko bertsoak ba-ditu bere lanak ondo asi eta ondo eramaten. Txapelketa egunetan, batez ere»²⁹.

2.6. Eginkizunik beharrezkoena: garaiko eskakizunei egokitzea

a. *Kulturaren eta eskolan*: «Eskolak bertsolariari egoak mozten dizkiola? Bertsolari sena galdu egiten dula? Jainkoarren etzazuela olakorik sinistu! Berez bertsolari danari, moztu ta laburtu ez baña, luzatu egiten dizkio egoak eskolak»³⁰.

b. *Jendearen eta bertsolariaren errespetuan*: «Gaur egunean izendatzen zaizkien gai asko oso kaxkarrak eta narratsak, iruditzen zaizkigu; errespeto pixka bateko jendearen artean erabilli ezin ditezkeanak. Gai eskas, zentzugabe bat jartzeari naikoa da bertsolari onena ondatzeko; kantatzeko gogo denak kentzeko»³¹.

c. *Toki itxietan kantatzea*: «Gaur ere, oiturari jarraituz, plazan kantatzen da leku askotan. Ez litzake ala egin bear ordea»... «Gaur, toki askotan, bertsolariak barrunbean jartzen dituzte: saloitan, teatrotan, zinetan»

«Bertsolari jaialdiak toki itxietan egin bear dira. Antzoki edo teatroetan, pelotalekuetan eta abar»³².

d. *Ezikerabidean*: «Bertsolariak sortzen baiño lenago, euskal giroa eta erri-giroa sortzen alegindu bear degu; bertso-zaletasuna sortzen, alegia. Arretaz entzuten dionik ezpadu, bereala mututuko da».

«Bertsolari sena berekin duala konturatu ezker, alakoari lagundu egin bear zaio, ori bai. Alakoarentzat ondo letorke Bertsolari Eskola».

«Doai ori txikitandik dakartenak aukeratu bear dira; aieri erakutsi bear zaie erakuts ditekeana»³³.

Bideak ekarrira mintzo da Basarri bertsolari; eta bide hau, gehienetan, aldi-aldi berriekin edota eztabaidekin loturik dator bere iritzia agertzeko

²⁷ Id.: ibid., 34 or.; 45-46 or.

²⁸ Id.: ibid., 21 or.

²⁹ Id.: ibid., 23 or.

³⁰ Id.: ibid., 77 or.

³¹ Id.: ibid., 145 or.

³² Id.: ibid., 55-56 or.; 175 or.

³³ Id.: ibid., 169-170 or.

egokiera. Zer ez den argi utziko digu: ez da olerkaria, ez da koplaria, ez da kantaria, ez da pailazoa. Herri-poeta da, bertsolari zaharren eta poeten arteko zerbait. Ahozkotasunaren neurritara errenditu beharra du, berezko zailtasunak ez areagotuz, eta bertsogintza bere neurri honetara makurtuz. Eta azkenik, garai-ko eskakizunei adi ego behar du, aldaketa sozio-kulturalak kontuan hartuz.

3. ESTRATEGIAREN BARRUKO ZENBAIT GAI ETA BALIABIDE

Irizpide zabalak markatzen gehiago aritu izan dela uste dugu Basarri, eskuarki behintzat, teknikak zehazki aztertzen eta sailkatzen baino. Hala ere, hor daude, adibidez, puntuei buruz eta bederatziko puntuko moldeari buruz jalgitako ikas-kuntza xehetuak.

Gai eta alderdi hauek zenbait puntutan hain landuak ez baditu ere, jakingarri direlakoan, eta gainera zenbait jokabidetan eredugarri denez, laburki eman ditzagun alderdirik nabarmenenak.

3.1. Bidea jartzea

Bertsolari bati baino gehiagori entzun izan diogu hau zela Basarriren dohai-rik ederrenetakoa: «bidea zabala utzi beti besteari» (Lasarte); «erraz da horren ondoan kantatzen» (Xalbador)³⁴. Alegia, Basarrirentzat txandakako bertso-saioa elkarlana zela, eta hori hala izan zedin ahalegintzen zela.

Zer den bidea jartze hori bertso-lanean. «Bi bertsolari ari direnean, esango digu erreziltarrak, badakite nola jokatu. Bietako batek bidea jarriko du. Edo txandan egingo dute zeregin hori, bein batek eta bein besteak. Batek gaia eman; besteak erantzun... Baten lana bezin txalogarria da bestearena. Biak dute alkarren bearra jendearen gustoa egingo badute ta plazan luzituko badute».

Aipamena luzea izanik ere, jakingarri delakoan, beretik gehiago eman dezagun: «Erdipurdiko bertsolariak ortan galtzen dira. Eztakite alkarri biderik jarzen. Inoiz izaten dutenean ere, bear den etekiñik eztiote ateratzen gaiari».

«Bertsolari ontxoak izan arren, alkarrekin konpianza aundigirik ezpadute eta alkar serbitzeko oiturik ezpadute, gaizki ibiliko dira, baitare»³⁵.

Elkarrizketaren balioa azpimarratzen digu hemen, bertsolari zaharren dialektika zorrotz eta biperdunaren alboan. Ez liteke esan dialektika hau onartzen ez duenik, elkarrizketa generoaren ederra eta egokitasuna gomendatu baizik. Eta nahi gabe ere, gogora etortzen zaigu solaskidetzan Uztapidek eta Basarrik eginitako lekukotza ezin hobea.

³⁴ Batari eta besteari neronek entzuna.

³⁵ Id.: *ibid.*, 18-19 or.

3.2. Zenbait alderdi tekniko

a. Puntuak

Estrofa barruko estiko-bukaerek beren artean duten hoskidetasunaz ari gaituzu. Erdarazko errimaren kontzeptu bera duzu, nahiz eta osagaiez desberdin aurkitu hau eta hura³⁶. Eta auzia —Basarrik aipatzen duen arabera— hontan legoke batez ere: hoskidetza hertsiegia erabiltzeak kalte egiten dion edo mesede bertsoaren ederrari, puntuaren dotorezia gaiaren kaltetan gertatuz.

Basarrik duda-muda gutxikin damaigu bere ikuspegia: «Emengo bertsolariak geien ondatzen gaituna puntu legea da. Bertsoaren giar eta sentiduari baño puntuak ondo uztartzeari arreta biziagoa eskeintzen diegu».

«Lege onek bideak itxi ta trabak jarri besterik eztingu egiten. Euskal bertsoak naitaezko du puntuen gozotasuna, kantatzeko bertsoak direnetan beintzat. Baña eztegu premizko ta bearreko ain urrean ibiltzea. Iñongo izkuntzetan ezta ain juxtu ta lotukor puntu legea».

Egokiago deritzo Basarrik ifarraldekoen jokabideari: «Bidasoz aruzko kanta ta bertsoak gureak baño apañagoak, bikañagoak, eta esanai aundiagokoak dirala geuk aitortzen duguna da. Guk baño bide zabalagoa artzen dutelako da ori; pentsamentuaren muña agertzeko guk baño toki lasaiagoa daukatelako». Eta Elizanburu jartzen du adibidetzat.

«Gazteleraz ere, *tendría, hacía, querria, sabia, manía* ta beste milla olako oso legezko puntuak dira. Azkenengo «ía» ori entzun ezker, ezin da obeto datoz belarritarako. Euskal bertsolariok bide au artu bearrak gaude ezer onik egin nai badegu»³⁷.

Zehazki aztertzeakoa litzateke, aholku hau zenbateraino bete izan duen Basarrik berak bere estrofagintzan, susmo bait dugu ohizko zorroztasunari gehiengotan eusten diola. Eta Basarriren garaiko bertsogintza eta gaurkoa erkatuz, gauza jakina da zailagotu egin dela azken urteotan puntuen hoskidetasuna, oraindik hertsia goa bihurtuz puntu-legea.

b. Bederatzi puntukoaz

Basarrik, gai hau dela eta, behin baino gehiagotan idazten badu ere aztergai dugun liburuan³⁸, bereziki artikulu osoa dakar bederatzi puntukoaz. «Arantzazu» aldizkariak dakarren oharra argigarri da benetan. Txapelketa giroko adierazpena da ezbaierik gabe. Izan ere esaten zaigu frantziskotarren aldizkarian «Basarri»ren lan au abenduaren 18'an Bertsolari-Txapelketa egin baño egun batzuk lenago jaso gendun»³⁹.

³⁶ Bi edo gehiago bertsolerraren bukaerako hoskidetza berdina edo antzekoa, azkeneko bokale azentudunetik abiatuz. Euskaraz, berriz, hiru osagai hauek har ditzake kontuan: atzizkia (dagoenean), gehi lexemako hoskidetza, gehi aliterazioak.

³⁷ Id.: *ibid.*, 21; 23-25 or.

³⁸ Ikus, adibidez, 21, 22 or.

³⁹ Id.: *ibid.*, 49 or., 1 ohar.

Eztabaida giroko idazlana dela bistan da. Honelako hitzekin hasten da erre-zildarra: «Bertsolariei buruz ere norbaiten iritziak irakurria naiz egun auetan. Iritzi oiekin bat natorrenik ez dizutet esango». Eta aldizkarikoek ere erre-zildarra-ekin bat datozela esaten dute, «ustez jakintsu batzuen esanak alde batera utzi-ta...»⁴⁰.

Auziaren zenbait xehetasun artikulu honetatik gehiegi garbitzen ez bada ere, antzematen zaio zerk sutzen zuen liskarra: txapelketen barruko ariketaren bat bederatzi puntuan egin beharrak. Gertatu berria zen Basarrirentzat lotsagarria zen egoera minbera hura: «Ikusi genduan Eibar'en egindako Gipuzkoako txapelketan zer lotsagarrikeri gertatu zan. Bederatzi puntuko bertsoak aginduta, parte artzen zuten bertsolari guziak (batek ez beste guziak), etzutela kantatuko esan zuten»⁴¹. Hau guztia jazo berria zen Basarrik ikuspegia azaldu zuenean, kontrako joera jakina hartuz.

Auziaren korapiloa askatzen hasteko galdera hauen bidez gaia zehazten du: «Norbaitek idatzi duanez, gaurko bertsolariak ez dute lan astunik artu nai; ez dute ezer jakin nai bederatzi puntuko bertsoekin. Ta ori orren errez esateko, zenbat bertsolari zar ikusi ditu aotik aora bederatzi puntuko bertsoak kanta-tzen?»

Txirritak esanikoa dakar lehenengo argumentutzat: «Iñortxo ere etzuala so-matu plaza batean aotik aora bederatzi puntuko bertso saiorik egiten. Berak ere etzuala doñu ori sekula erabili. Patxadarekin idazteko izaten zirala, ta ez bat batean kantatzeko».

Ispilu bezala jartzen diren lehenengo bertsolarien bederatzi puntuko ereduak, ezin izan litezke entzule batek lehenengo kantaldian osorik ikasiak. «Oiek geroz-tikako konponketak izaten dira; asti pixka bat artuta egiten diranak». Paperetan jarriak ezagutzen dira. Baina «paperetan jartzetik aurrez aurre kantatzera, zerutik lurreraiñoko aldea dago».

Ez da ezinezko bederatzi puntuko moldean lan egitea. Eta berari eskatuko balioite, ez luke ezetzik esango, eta botako lituzke al dituen bezalakoak. Baina: «bertsolari jaialdi batean bederatzi puntuko doñua erabiltzera gizonak beartzea, jaialdi dana itxustea ta ondatzea da»⁴².

Gaurregun bat baino gehiago dira bertsolariak txapelketaren barruan, unerik garrantzitsuenean eta inork eskatu gabe bederatzi puntukoan kantatzen dutenak. Oso jakinak dira, behar bada. Baina testigantza arretagarria da egin ohi dutena. Badirudi berritu direla estrofaren ederra lantzeko bideak bapateko kantugintza herrikoian.

⁴⁰ Id.: ibid.

⁴¹ 1960ko abenduaren 18an jokatuko zen txapelketa aurreko bertso-saioak ziren, noski, Gi-puzkoatik atzena jokatzera nortzuk joango ziren erabakitzeo jarriak...

⁴² Id.: ibid., 49-53 or.

c. Bertsoaren haria

«Bertsolari bertsolaria danak, asitako ariari zuzen jarraitzen jakin behar du. Ardoatzaz itzegiteko aginduta illargiatzaz mintzatzen dana ezta bertsolaria». Horregatik, bertsozaleak jakin behar du «nork daraman zuzen bertsoaren aria eta nor dabilen bidetik urrutiratua». Gaitik kanpoko aipamenak ez dira onartzekoak.

Batzuek azkenengo puntuaren esanahiari eta pikardiari bakarrik begiraten omen diote, aurretik bertsolaria nondik nora ibili den begiratu gabe. Etxe baten balioan, behetik goraino joan behar du obrak ondo, obra baliosoaren izena hartuko badu. Berdin estrofagintzan ere, ezinbestezkoa da bertsolaria nondik nora ibili den begiratzea.

«Alperrikako betelan asko egiten da bertsotan... Puntuak ondo uztartzeko zedozeri eldu egin bear eta eldu. Bertso onak, bertso mardul, oso ta bikañak, eztu olakorik izaten. Asieratik bukaeraraño izaten da giartsua. Naiz azkenengo puntuan bere gatz eta piperra izan, era ontan moldatutako bertsoa ezta txalogarri»⁴³.

Garai bateko bertsolariak inoiz egin ohi zituzten estrofen hasierak zirela eta, Basarrik esandakoak kontuan hartuz gero, badirudi urruntzen dela koplazaharren teknikatik, ifarraldeko bertsolari zaharren estilotik⁴⁴, eta ustegabekoa emateko eta ironia sortzeko erabiltzen ziren baliabidetatik oro har. Prozedura zaharretatik baino arrazoizko bidetatik areago duen bertsogintza berriagoan dabil dela esan behar gure bertsolari txapeladuna.

d. Koplaz teknika zer dion

Oiartzunen Antonio Valverde zenaren omenez, bertako kantu zaharren bilduma bat aurkeztu genuen. Hori dela eta, Basarrik gauzaren berri ematen du esanez, «bertako gizon eta emakume batzuk... gazte denboran ikasitako koplaz zarrak» kantatu omen zituzten. Eta albiste hau oinarri zuelarik, koplaz eta bertso berrien arteko aldeak markatzen dizkigu.

«Bertsolariak eta koplariak ez dituzte molde berdiñak erabiltzen... Koplaz zarrak, geienetan, bi ta iru puntukoak izaten dira, ta bertsoz txikiak berekin ditu, gutxieneko, lau puntu... Koplaz zarretan pentsamentua azkar eta bizkorrago dabil dela uste du Lekuona jaunak... Onek esplikazio erreza du bertsolari baten zat».

«Ondotxo neurri melarragoko ontzia da koplaz-ontzia, ta al danik edaririk onena atera nai bertatik. Bizkor ibili bearra dauka koplariak puntuak alkarri egozten eta esan bear diranak al danik sakonen esaten. Zortziko luzean asten den bertsolariak patxara obean egiten du lana. Puntu bat bukatu baiño len bigarrena

⁴³ Id.: *ibid.*, 15-18 or.

⁴⁴ «Ni neroni entzuna nago gerra-aurrean Ligex bertsolari jatorrari, bere bertsoak era ortan kantatzen: lenengo zatian troxu liriko bat kantatu, eta orren ondoren, bertsolari lagunari erantzuna. Koplazetan bezelaxe». M. Lekuona: *ibid.*, 84 eta 306 or.

pentsatzen ari da, ta ba-daki artean beste bi puntu palta zaizkiola. Koplariari denbora bukatzen zaio bereala; azkar egin bear du asi eta buka»⁴⁵.

e. *Bertso-jartzaileak*

«Xenpelar-Saria» dela eta, harrotzen digu gai hau. Aipatzen dituen gertakari eta berrien artean, ematen dizkigu bere iritziak eta egiten bere balioztatzeak.

Lehenik bertsoen kalitateari buruz: «Kalidade oneko bertso asko argiratzen da; sekula baiño obeak, nere iritzirako. Nai duanak pentsa dezala nai duan modura. Nik nere sentipena esan det». Hori bai, euskal bertsolariak ez du erori behar, joan den ehun urte hontan eginiko lana hutsaren hurrengo dela uste izateko pekatuan. Baina gaur maixu haien lanak berdindu edo gailendu badituzte, hainbat hobe gure hizkuntzarentzat⁴⁶. Aurrera egin behar da lehengoak beztertu gabe, baizik eta beren ingurugirotik ikusiz eta balioztatuz.

Bestalde, Basarriren ustez, herri-poesiarako gogoa du hemen herriak: «Poesi landuak, goi-poesiak, eztu emen sarrerarik, erri-poesiak baizik./ Erri-literaturaren maillako ta eskolako bertsoak eskatzen dira./ Euskal kultura dagoen maillan dagoen arteraño, poesi errikoia poesia landua baiño probetxugarriago izango ote den gaude./ Oso gutxi baitira, zoritxarrez, goi maillako poesiari bere zumua ateratzeko gai diran euskaldunak»⁴⁷.

Basarrik gogotsu adoretzen ditu bertso-jartzaileak aipatu sariketan esku-har dezaten: «Zuek bertsojartzaille gazteok, edo urtetan zerbait eldutakuok, aurrera artu dezuten bide txalogarrian»⁴⁸. Bere proiektu barruan sortzen da bertso-paperrak lantzea. Hala ere, bere burua ez dirudi zeregin horretan sartua ikusten duenik. Eta egiaz, eta guk dakigula, ez zuen sekulan lanik aurkeztu sari horretara⁴⁹.

3. AZKENA: BASARRIREN JARRERA ETA EKARRIA

«Lehenengo Bertsolari Eguna» 1935ean ospatu zenean, Basarrik saria irabazi ezezik, aintzindaritzat hartu zuen bere bizkar, bertsolaritzat berriagoan aurreku izateko eginkizuna hartu. Eta gero, urte askoan gainera, zeregin hori bete bertsozko emanalditan, batez ere plazako eta jendaurreko bertsolaritzan.

⁴⁵ Id.: ibid., 105-108 or.

⁴⁶ Id.: ibid., 94-95 or.

⁴⁷ Id.: ibid., 111 or.

⁴⁸ Id.: ibid., 95 or.

⁴⁹ «Badira bapateko bertsolariak bertso asko idatzi dituztenak, liburuak osatzeraino idatzi ere, baina «Xenpelar Saria»n esku-hartu ez dutenak, edota beren izenak aktetan aipatzeke geratu direnak: Basarri, Uztapide, Lasarte, Garmendia, B. Enbeita, Arozamena eta abar. Erantzun desberdina izan duela esan behar sariketarak bertsolarien artean». J. M. Lekuona: *Xenpelar Sariaz*, in «Bertso-paperrak» Xenpelar Saria», «Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala», Donostia, 1985, 18 or.

Orain arakatu dugun liburuan, bertsolaritzari buruzko irizpideak ematen dizkigu autoreak, argi eta garbi bere jarrera agertuz: zein diren bere aurreko bertsolaritzaren beharrik gorrienak, bertsolaritzari opa dizkion helburu nagusiak, garaia atxekiz gomendatu eta osabete dituen aldakuntza teknikoak eta abar. Basarriri zor diogu ez gutxi plazako bertsogintzaren joera craberritu izana, kantugintza jantziagora eta gaurko eskakizunei egokituagora bertso-untzia kudeatuz. Saio laburragoak, eragingarriagoak, agian dotoreagoak eta bertsozale gehienen ahogozorako gustagarriagoak, ekarri dizkigu.

Bertsolaritzaren norabidea zehazteaz gain, zabalkundean Basarrik eginiko lana ere hor legoke, bere proiektuaren euskarri. Eta langintza hau ez zen nolana-hikoa. Gehienetan Uztapide lagun harturik, herririk-herri, ibilera gaiztotan, desgaraian, baina beti kantuzko zerbitzu leialean. Hogeitaka urtez leku berean kantatuz, eta bertsolaritza galtzear zegoen lekuetan berriro biztu-araziz, eta usarioko gauzatat zeukaten haietan beharrezko festakizun bihurtuz. Eta txapelketetan aurpegi emanez, ordu ohoretsuak ezik mingotzak ere dastatuz, guzia bertsoaren onerako zela ustetan. «Bertsolari Eguna» ospatzen hasi ziren hartan, berrikuntza baten beharrean zegoen bertsolaritza. Eta Basarrik, egin zezakeen hura eginez, eta itzali gabe suari eutsiz, isileko testigantza egin zuen, testigantza sinbolikoa ere bai denbora zailtan, guk barrunbean genuen iraun-gogoari bizia emanez.

Basarriren ekarria, bere proiektuaren argitan, honelatsu azpimarra dezakegu:

— Garaiko bertsolari gehienek baino prestakuntza hobea zuen bertsolaritzaz mintzatzeko: gizon eskolatua, ikasia, ongi jantzia literaturan, musikan, hizlaritzan eta herri-ezagutzan.

— Praktikotasun burutsua da bere lege nagusia: teoriak mamituz, bide berriak asmatuz, jokabideak finkatuz, jendearen susmoak gauzatuz eta gorpuztuz.

— Gaiak biziak, ugariak eta arretagarriak erabiliz, kazetari bati nahitaez dagokion eran: fedea, hizkuntza, herria, kultura, giza-legea, bihotz-eragina, balio sustantiboak garatzeko joera. Eta dena, eguneroko gertakizunen ikuspegitik ikusia.

— Bertsolaritza berriago baten nolakotasunak markatzen ditu: saio laburragoak, zehatzagoak, musikaz aberatsagoak, kulturaz jantziagoak; kultura idatzia- ren bulkoari adi egon den abeslari herrikoa.

Plazan agertu zenetik itzaropena sortu zuen eta eginkizun bat bere gain hartu. Gaur, denboraren joanean ikus daitekeenez, emaitza mardula da berak eskaini diguna, bai plazako kantugintzan, bai idazkien bidez osabeteriko langintzan. Gutxik lagundu dute Basarrik adinbat bertsolaria, bertsoa eta bertsozalea bideratzen. Ongi bete du bere zeregina, gerraurrekoek amestu zuten eran, geuk bertsolaritzari beti opa izan diogun hobekuntzan.